

Aurten ere, irailaren 27a Gudari Eguna dugu, borrokan erori diren gudariak omentzeko eguna da, eta Arrasaten ugari dira faxisten aurre eginez eta Euskal Herriaren askatasunaren alde borrokan euren odola isuri duten herritarrak: guztien aurrean, Arrasateko gazteok ozen esaten dugu: AGUR ETA OHORE! Zuei esker, gure herria bizirik dago, eta euskal herri langilearen sugarra ez da itzali!

Hala ere, ezin dugu ukatu oraindik Espainiar eta Frantziar Estatuak indartsuak direla, kapitalismoa gero eta krudelagoa eta aseeginagoa dela, eta bide luze eta gogorra daukagula egiteko, jendarte parekidea erakitzeke, patriarkatuaren kontra. Horregatik, Gudari Eguna ezin da izan borroka iraganen ulertzen duen ekitaldi bilduma bat, baizik eta borroka etorkizuna eraikitzeke giltzarri dela aldarrikatzen duen hitzordu esanguratsu bat.

Beraz, Arrasateko gazte antolatuok argi eta garbi esan nahi dugu: borrokarako irrikitan gaude, eta gudarien ereduari jarraituko diogu beti, Independentzia eta Sozialismoa lortu arte!

AURRERA BOLIE!

Arrasateko gazteak.